

## **STREAMING PLATAFORMAK**

---

## STREAMING PLATAFORMAK

---

Txosten honetan aurkezten dira 2021-2022 ikasturtean egindako seigarren inkestan jasotako emaitzak. Streaming plataformei buruzko gaiak landu dira nagusiki inkesta honetan.

### 1. OHAR METODOLOGIKOAK

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. Galdetegiak encuestafacil.com plataformaren bitartez kudeatzen dira eta hortik jasotako datu baseak Aztiker Soziologia Ikerketa Unitateak ustiatzen ditu.


Txosten honetan aurkituko dituzu 2022ko martxoaren 7tik 14ra bitartean martxan izandako inkestaren emaitzak. Hilabete honetan panelkideek streaming plataformetan zer eta nola kontsumitzen duten aztertu da: lekua, plataformak, hizkuntza, azpidatziak, kontsumitzeko arrazoiak... 1.188 erantzun hartu dira kontuan, baliozko panelista guztienak (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).



**2. PLATAFORMA DIGITALAK, VIDEO ON DEMAND EDO ORDAINPEKO ALA DOANEKO STREAMING PLATAFORMAK**

Inkesta honetan plataforma digital, streaming zerbitzu edota OTTei buruzko galderak egin dira. Lehenengo eta behin, eskura dituzten plataformei buruz galdetu zaie (ordainduta edo doakoak, harpidetzarekin edo gabe...). Inkestatuen hamarretik zortzik baino gehiagok adierazi du Netflix eskuragarri daukala; bigarren lekuan Amazon Prime Video dator, % 58,3k esan baitu badaukala. Hirugarren lekuan, nahiko elkarren parean, Movistar+, Disney+ eta HBO daude, bakoitza hamarretik hiru inguruk aipatzen baitu. Ondoren Dazn (% 16,4) eta AnimeFLV (%14,4) datoz. Hortik beherakoek aipamen oso gutxi jaso dituzte (Apple TV, Filmin, Rakuten TV, beln Connect eta Sky).


1. Irudia – Eskura dituzten plataforma digital, streaming zerbitzu edota OTTak (aukera anitza)



Iturria: Ikusiker Aplikak +

Plataforma horietako bakoitza erabiltzeko zein den arrazoi nagusia galdetu da segidan. Plataforma bakoitzaren erabiltzaile diren pertsonen erantzunak kontuan hartuta sortu da beheko grafikoa. Arrazoi aipatuena, kasu guztietan, “edukiak gustatzen zaizkit (serieak, pelikulak...” izan da. Hala ere, plataformaz plataforma begiratuta ñabardurak ikusten dira: edukiak gustatzeak pisu bereziki handia du Netflixen kasuan edota AnimeFLVrean. Bestetik, “prezioagatik (merkea da/doan lortzen dut” arrazoiak indar berezia du Euskaltelen kasuan, Rakuten TVrean edota Amazon Prime Video-rean. Azkenik, inkestatuen % 5-15 bitartek adierazi du kasuz kasu telebista tradizionalak ez duela asetzen.


### 2. Irudia – Plataforma digital, streaming zerbitzu edota OTT bakoitza erabiltzeko arrazoi nagusiak.



Iturria: Ikusiker Applika +

Orokorrean, streaming plataformei 7,82ko batezbesteko balorazioa eman zaie 0 eta 10 bitarteko eskalan. Talderik handiena 8ko puntuazioan sortu da, % 40,5ek nota hori eman baitie.


3. Irudia – Orokorrean, streaming plataforma (bereziki zuk erabiltzen duzun ala dituzun) horiei zer nota jarriko zenieke, 0-10eko eskalan?



Iturria: Ikusiker Applika +

Streaming plataforma horiek erabiltzeko maiztasunaz galdetuta, erdiek baino gehiagok diote astean 3-5 aldiz edo gehiago erabiltzen dituztela (% 29,6k astean 3-5 aldiz, eta, aldiz, % 26,7k egunero).


4. Irudia – Zein maiztasunekin erabiltzen dituzu streaming plataforma horiek?



Iturria: Ikusiker Applika +

Audioaren hizkuntzari erreparatuta, streaming plataformetako edukiak gaztelaniaz ikusi ohi dituzte bi heren pasatxok (% 67,7k) eta beste laurdena pasak ingelesez (% 26,5). Euskara eta frantsesa ez den beste hizkuntzaren bat aipatzen dute beste % 4,8k; euskaraz ikusten dituztenak normalean % 0,7 dira, eta frantsesez % 0,3.


## 5. Irudia – Normalean, ze hizkuntzatan ikusten dituzu streaming plataformetako edukiak? (audioaren hizkuntza)



Iturria: Ikusiker Applika +

Azpidatziei dagokienez, herena pasak dio ez dituela erabiltzen normalean. Erabiltzen dituztenen artean, ia guztiek gaztelaniaz edo ingelera erabiltzen dituzte, antzeko proportzioan (gaztelaniazko azpidatziak erabiltzen dituzte inkestaturen % 31,6k eta ingelera % 30,6k). Euskaraz, frantsesez eta beste hizkuntza batzuetan erabiltzen dituztenak % 1,4 dira guztira.

## 6. Irudia – Eta eduki horiek ikusteko normalean azpidatziak erabiltzen badituzu, ze hizkuntzatan jartzen dituzu?



Iturria: Ikusiker Applika +

**3. PLATAFORMA DIGITALAK, VIDEO ON DEMAND EDO ORDAINPEKO ALA DOANEKO STREAMING PLATAFORMETAN IKUSITAKO AZKEN EDUKIA**


Bestetik, plataforma digital, video on demand edo ordainpeko ala doaneko streaming plataformetarik ikusitako azken edukiaz galdetu da. Kasu honetan aukeratutako edukian aniztasun handia dago ez dago eduki bat edo besteengandik asko nabarmentzen denik. Hala ere, aipatuena *Euphoria* izan da, ondoren *Merlí* eta hirugarren tokian *El Internado*. Atzetik gelditzen dira *Peaky Blinders*, *Vikingos*, *Física o Química* edo *Shingeki no Kyojin* bezalako serieak.



Iturria: Ikusiker Aplikak +

Azken eduki hori erdiek baino gehiagok Netflixetik ikusi zuten (% 53,8k), eta beste bi plataforma aipatu dituzte hamarretik batek (Amazon Prime Video eta HBO). Hirugarren lekuan Disney+, Movistar+ eta AnimeFLV daude, inkestatuen % 4-5 inguruk aipatuta.


**7. Irudia – Ikusi duzun azken eduki hori zein plataformatan zegoen?**



Iturria: Ikusiker Aplikak +

Eduki hori ikusteko erabilitako aparailuen artean bi nabarmentzen dira: ordenagailu eramangarria (% 36,7k erabili zuen) eta internetera konektatutako telebista (Smart TV), % 32,8k aipatuta. Horien ondoren, mugikorra % 14,2k esan du, tableta % 9,3k eta mahaiko ordenagailua % 5,0ek.


8. Irudia – Ikusitako azken eduki, pelikula, serie ala dokumental hori zein aparailu bidez ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Azken edukiari dagokionez, % 67,3k gaztelaniaz entzun zuen audioa eta % 25ek ingeleraz. Euskara eta frantsesa ez den beste hizkuntzaren batean entzun zuen % 6,8k.

9. Irudia – Ze hizkuntzatan ikusi zenuen azken eduki hori? (audioaren hizkuntza)




Iturria: Ikusiker Applika +

Azpidatziei dagokienez, hamarretik seik baino gehiagok ez zuten azpidatzirik erabili (% 64,7k), eta erabili zituztenen artean, gaztelaniazkoak eta ingelerazkoak izan dira ia guztiak (% 19,0k gaztelaniaz eta % 15,3k ingelesez).



10. Irudia – Azpidatziekin ikusi bazenuen, ze hizkuntzatan ziren?



Iturria: Ikusiker Aplikak +

Azkenik, azken aldia ikusi duten serierik gustukoena zein izan den galdetu zaie panelkideei, eta galdera honetan nabarmenago izan da Euphoria seriearengatik egindako hautua, Berau izan da aipatuena, bigarren tokian La casa de papel eta hirugarrenean Peaky Blinders utzita. Aipatuenean artean daude Merlí, Prison Break, El Internado edo Vikings bezalako edukiak, eta bereziki aipatzekoa da mendebaldeko edukien artean ekialdekoak ere agertzen direla. aipatuenean artean daude bi anime japoniar: Shingeki no Kyojin eta Kimetsu no Yaiba.



Iturria: Ikusiker Aplikak +